BILBAO BIZKAIA ACTION GROUP DINAMIZATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. AURREKARIAK

2015. urtean, abenduaren 22ko 213/2015 Foru Dekretuaren bidez, Bilbao Bizkaia Action Group sortu zen diziplina anitzeko erakunde gisa. Bilbao Bizkaiko turismoko eragile publiko eta pribatuek osatzen dute. Organo honen zeregina da ekosistema turistikoarekin lotutako proiektuak ezagutu eta horien gaineko aholkuak ematea. Hala, eratu zenetik, etorkizunerako Bilbao Bizkaiko turismoa bultzatu du, bi eremutan antolatzen den gobernantza partekatuari esker: batetik, lan estrategikoa eta, bestetik, lan operatiboa.

Bestalde, 2030erako Turismo Estrategia berria 3 ardatzen bitartez egituratu da, eta ardatz horietako bat gobernantzari dagokio. Gainera, 7 helburuen artean dago Bizkaiko ekosistema turistikoa indartzea. Ekosistema horretan BBAG funtsezko elementua da honako funtzio hauek baititu:

- Arlo turistikoko eragile guztiekin ikuspegi estrategikoa partekatzea eta hedatzea helmugaren baterako gobernantza bermatzeko.
- Baterako lan-ildoak garatzearen bitartez jarduera publiko-pribatua sustatzea.
- Turismoaren arloan etengabe aholkatzea, lurraldean lehiakortasuna hobetzeko.
- Turismoaren arloan lurraldeari dagokionez erabakiak hartu behar direnean erreferentziazko organo lider izatea.

Xede horrez, BBAGk honako hauek behar ditu:

- Eragile publiko eta pribatuen artean koordinazio- eta komunikazio-sistematika zehaztea, turismoaren arloan sinergiak sortzeko.
- Lurraldean modu egituratuan eta orekatuan lan-ildoak identifikatu eta garatzea, turismoaren arloan estrategiaren helburuetara iristeko.
- Eragile turistiko publiko eta pribatuekin aholkularitza-lanetan jardutea, eremu estrategikoenetik operatiboenera jarduera garatzeko.
- Jarduketak abian jartzea proiektuak hautatzean zenbait erabaki alderatzeko foro gisa finka dadin; horrez gain, zainduko da 2030erako Turismo Estrategiarekin eta helmugako eragileen interesarekin lerrokatzeko.

Bilakaera aintzat hartuta, turismoaren sektorearekin zerikusia duten jarduerei lotuta, lantalde berriak sortu behar izan dira. Gaur egun hainbat lantalde daude, eta bakoitzak bere estrategia, ekintza-plana, proiektua eta aurrekontua ditu.

2030erako Turismo Estrategia berriak lantalde berriak indartu, sailkatu eta sortu nahi ditu. Hala, bi talde eragile (turismoaren industria eta helmuga turistikoak) eta lantalde berriak bereizten ditu, nagusiki produktu eta segmentu berriak garatzeko eta lehiakortasun, digitalizazio eta iraunkortasunaren palanketarako.

Lan-bolumen handia ekarriko dute egungo lantaldeak dinamizatzeak, lantalde berriak sortzeak eta 2030erako Turismo Estrategia berria abian jartzean guztiak koordinatzeak. Gainera, urteko ekintza-planak formulatzean, proiektuak bultzatzean eta jarraitzean laguntza eman beharko zaie. Beraz, ezinbestekoa da lantaldeak dinamizatu eta koordinatzeko zerbitzua kontratatzea.

2. KONTRATUAREN XEDEA ETA ZERBITZUAK EMATEA

Kontratuaren xedea da 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako Bilbao Bizkaia Action Group dinamizatzeko zerbitzua ematea.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

3. PROIEKTUAREN HELBURUAK

2030erako Estrategia berriari lotuta, 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako Bilbao Bizkaia Action Group dinamizatzeko zerbitzua kontratatze aldera honako behar hauek identifikatzen dira:

- 2030erako Turismo Estrategia berriarekin bat etorriz, gobernantza-eremu berria indartzea eta, horretarako, Bilbao Bizkaia Action Groupen egungo beharrei eta etorkizuneko egoerari erantzuteko jarduketak gauzatzea.
- Erakunde publiko eta pribatuen artean, bai eta Bilbao Bizkaiko turismoari lotutako beste eragile estrategiko batzuekin ere, harremanetarako eredua sendotzea eta, xede horrez, kide berrien atxikipena eta organo eta lantaldeen funtzionamendua arautzeko araudia egitea.
- Estrategia berriaren helburuekin, jarduketa-lerro estrategikoekin eta printzipioekin bat etorriz, BBAGn sartzeko eragile berriak identifikatzea.
- Lantaldeko kideen partaidetza eta inplikazioa bultzatzeko mekanismoen bitartez kanpoko eta barneko komunikazioa sustatzea.
- Industriak eta Helmugak lantaldeen funtzionamenduaren eta jardueren proposamena definitzea, beste lantalde batzuen aldean talde eragileak diren neurrian.
- Lehendik dauden lantaldeen bideragarritasuna ikuskatu eta baliozkotzea.
- Lantaldeen funtzionamenduari buruzko sistematika, partaidetza-tresnak eta -dinamikak, jarduketen plangintza, hedapena eta betearazpena, jarraipena eta ebaluazioa definitzea.
- Lantaldearen ekintzak komunikatzeko eta ikusgai izateko proposamena.

Beraz, Idazkaritza Teknikoaren zeregin nagusiek gutxienez ondorengo lan-arlo izango dituzte ardurapean:

- Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritzari BBAGko partaideen datu-baseak eguneratzen eta deialdiak egiten laguntzea.
- Lantaldeen bilkuretarako aztergaien zerrendak garatzea, aktak idaztea eta dokumentazio guztia sortzea; BBAGko kideek helarazitako informazio eta azterketa guztiak biltzea, bai eta dokumentazio guztia aztertu, gorde eta sailkatzea ere. Halaber, kontratuaren indarraldian BBAGren barne-erabilerari buruzko arauetarako eta funtzionamendurako eskuliburuak garatu beharko dira.
- Off eta online partaidetza-tekniken bidez lantaldeei laguntzea, informazioa eskuratzea eta aurretiaz estrategiak zehaztu ondoren kideek nahiz Bizkaiko Foru Aldundiak emaitzak lortzera bultzatzea.
- Lantalde bakoitzak abian jarri behar dituen proiektuak kontratatzen eta ikuskatzen laguntzea eta, horretarako, azpikontratatu diren enpresen eta BBAGko kideen arteko jarduera koordinatzea.
- visitbiscay.eus/profesionales webguneko BBAG atalean edukiak elikatzea. Horrez gain, CRM ad-hoc bat sortu beharko da BBAG eta haren komunikazio digitalak kudeatzeko eta mugikorrarekin lotuta teknologia berriak erabiliko dira, kideen informazioa errazago eskualdatu eta biltzeko.
- Arlokako BBAG edo lantalde bakoitzaren estrategia eta ekintza-planak definitzea.
- Arlokako BBAGetako buruekin jarraipen- eta koordinazio-bilerak antolatzea.
- Arlokako BBAGek egin behar dituzten ekimen eta proiektu estrategikoak dinamizatu eta bultzatzea.
- Jarraipen operatiboaz eta estrategikoaz arduratzea eta, horretarako, estrategiaren jarraipen-sistemari lotutako adierazleak erabiltzea eta, besteak beste, GJHak kontuan hartuta, ekarpen-adierazleak sartzea.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

- Lantaldeak egin dutenari, haren eraginari eta hedapenari buruz hiru hilez behingo txostenak eta urteko memoria egitea eta aldizka Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari aurrerapenak jakinaraztea.
- Sektorean networkinga bultzatzea eta, xede horrez, sektorean lankidetza publiko-pribatua, eragin, suspertu eta sustatzeko jarduketak abian jartzea, estrategiaren ezarpen-denboraldi berrian sortzen diren aukera berrietatik abiatuta balioa duten proposamen berriak sortu ahal izateko.
- BBAGn ordezkatuta dagoen sektore publiko-pribatuan eragiteko ekitaldi bereziak antolatzean elkarlanean jardutea.
- Bilbao Bizkaiko eskualde eta udalekin batera lan-eremua antolatzea; lurraldean turismoko erakunde kudeatzaile guztien artean baterako lan-mekanismoak eta -ildoak diseinatzea, lurraldea egituratzen duten hiru espazioren bitartez oreka bermatzeko; eta kudeaketa turistikoaren arloan ahaleginak eta emaitzak lerrokatzea.

4. ZERBITZUEN IRISMENA

Honako emaitza eta zerbitzu hauek espero dira:

- BBAGeko Idazkaritza Teknikoa, 2 talde eragileena (industria turistikoa eta helmuga turistikoak) eta 14 lantalde ingurukoa,
- Produktuak garatzeko eta finkatzeko sortutako focus group-ekin edo lan-batzordeekin koordinatzea
- Gutxienez 70 lan-saio urtean.
- 25-30 proiektu, inguru lantaldeek garatuak
- Proiektu eta jarduera zehatzak dituen lantalde bakoitzeko estrategia eta urteko lan-plana, organo eskudunek balioztatuko dutena.
- Hiru hilez behin lantalde bakoitzaren bilakaera-txostena eta amaierako txostena, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko.
- Jarraipen estrategikoa eta operatiboa adierazleekin eta aginte-taularekin.
- Eragile bakoitzaren gogobetetasuna eta partaidetza ebaluatzea.
- Dokumentu-sistema eguneratua, sailkatua eta digitalki irisgarria.
- Erabiltzaileak kudeatzeko eta haiekin komunikatzeko tresna digitala.
- Lana koordinatu eta ikuskatzea.
- BBAGri lotuta urte guztian zehar laguntza eta kontsultak.

5. ESKAINTZA

Proiektu honetarako proposamen teknikoak hurrengo hauek garatuko ditu:

- Planteatzen den lan-testuinguruari buruzko sarrera.
- Berezko lan-metodologia edo bigarren mailakoa, lan-prozesuekin eta bestelako xehetasunekin.
- Taldearen proposamena, lanen koordinazio- eta ikuskapen-sistema.
- Entregatuko diren emaitzen laburpena eta, garrantzitsutzat jotzen bada, proiektuarekiko hobekuntzak.
- Neurketa-parametroen taula, ikuspegi kualitatibotik eta kuantitatibotik emandako zerbitzuaren eraginkortasuna eta efizientzia baloratzeko.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

6. GENERO-IKUSPEGIA

Enpresa lizitatzaileek, beren proposamenak egin eta aurkezterakoan, hizkera ez-sexista erabili beharko dute. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du edozein behin betiko dokumentu idatzitan eta/edo digitaletan, eta datuak sexuaren arabera bereizi beharko ditu sortzen diren pertsonei buruzko edozein estatistikatan, betiere Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.4 artikuluaren babesean. Artikulu horretan, errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten dira.

Esleipendunak, kontratuaren xede den prestazioa egin izanaren azken justifikazioan, kontratazioaren genero-eraginari buruzko memoria bat jasoko du, aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko aukera emango duten erabiltzaileen edo onuradunen edo zerbitzu-emaileen adierazleak eta datuak sexuaren arabera bereizita.

7. LANAREN KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA

Agindutako lanaren edo zerbitzu-ematearen ondorioz sor daitezkeen obren jabetza intelektuala ustiatzeko eskubide guztiak (erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa) Aldundiari bakarrik lagako zaizkio, ohiko jarduerarako behar duen irismenarekin, obra entregatzen den unean, denbora-mugarik eta lurralde-mugarik gabe, eta egindako lanak edo zerbitzuak ezarritakoaz bestelako konpentsaziorik gabe.

Era berean, konfidentzialak izango dira, eta ezingo dira osorik edo zati batean argitaratu ez beste edozein modutan erabili ere, Bizkaiko Foru Aldundiak aurretiaz eta berariaz baimentzen ez badu.

Esleipendunak ezingo du proiektuei buruzko jendaurreko adierazpenik egin, Bizkaiko Foru Aldundiak aurretiaz eta berariaz baimentzen ez badu.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE DINAMIZACIÓN DEL BILBAO BIZKAIA ACTION GROUP

1. ANTECEDENTES

En el año 2015, mediante el Decreto Foral 213/2015, de 22 de diciembre, se creó el Bilbao Bizkaia Action Group como un ente multidisciplinar, compuesto por agentes públicos y privados del turismo de Bilbao Bizkaia. Este órgano se encarga de conocer y asesorar sobre los proyectos relacionados con el ecosistema turístico, y ha impulsado desde su constitución el turismo de Bilbao Bizkaia con una visión de futuro, gracias a una gobernanza compartida que se articula a través de un ámbito de trabajo estratégico y un ámbito de trabajo operativo.

Por su parte, la nueva Estrategia de Turismo 2030 se despliega a través de 3 ejes, siendo uno de ellos el de la gobernanza. Además, entre los 7 objetivos en ella reflejados está el de reforzar el ecosistema turístico de Bizkaia. Ecosistema en el que el BBAG es un elemento clave con las siguientes funciones:

- Difundir y compartir la visión estratégica con todos los agentes del ámbito turístico para garantizar la cogobernanza del destino.
- Fomentar la actividad público-privada a través del desarrollo de líneas de trabajo conjuntas.
- Asesorar permanentemente, en materia turística, para mejorar la competitividad a nivel territorial.
- Ser el órgano líder y de referencia en la toma de decisiones sobre el territorio en materia turística.

Para ello, el BBAG requiere:

- Establecer una sistemática de coordinación y de comunicación, entre agentes públicos y privados, de cara a generar sinergias en el ámbito turístico.
- Identificar y desarrollar, de manera estructurada y equilibrada en el territorio, líneas de trabajo que ayuden a lograr los objetivos de la estrategia definida en el ámbito turístico.
- Realizar labores de asesoramiento a los agentes turísticos, públicos y privados, en el desarrollo de su actividad desde el ámbito más estratégico hasta el más operativo.
- Poner en marcha actuaciones que lo consoliden como el foro de contraste de ciertas decisiones sobre una selección de proyectos y donde se velará por su alineamiento con la Estrategia de Turismo 2030 y el interés de los agentes del destino.

Su propia evolución ha hecho necesario la creación de nuevos grupos de trabajo vinculados a diferentes actividades relacionadas con el sector turístico. En la actualidad existen grupos de diferente naturaleza, con estrategia, plan de acción, proyecto y presupuesto propios.

La nueva Estrategia de Turismo 2030 recoge el fortalecimiento, clasificación y creación de nuevos grupos de trabajo, diferenciando 2 grupos tractores (Industria Turística y Destinos Turísticos) y nuevos grupos de trabajo orientados fundamentalmente al desarrollo de nuevos productos y segmentos y las palancas de competitividad, digitalización y sostenibilidad principalmente.

Dado el volumen de trabajo que supone la dinamización de los grupos actuales, la creación de nuevos grupos y la coordinación entre todos ellos con la puesta en marcha de la nueva Estrategia de Turismo 2030, así como, el apoyo en la formulación de planes de acción anuales, impulso y el seguimiento de sus proyectos, se hace necesario la contratación del servicio de dinamización y coordinación de estos grupos de trabajo.

2. OBJETO DEL CONTRATO Y PRESTACIÓN DE SERVICIOS

Constituye el objeto del contrato la prestación de servicio de dinamización del Bilbao Bizkaia Action Group para el ejercicio 2022, 2023 y 2024.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

3. OBJETIVOS DEL PROYECTO

En relación con la nueva Estrategia 2030, se identifican las siguientes necesidades para contratación de un servicio de dinamización del Bilbao Bizkaia Action Group para el ejercicio 2022, 2023 y 2024:

- Reforzar el modelo de gobernanza de acuerdo con la nueva Estrategia de Turismo 2030 mediante actuaciones que respondan a las necesidades actuales y la situación de futuro del Bilbao Bizkaia Action Group.
- Reforzar el modelo de relación entre organizaciones públicas y privadas, así como, con otros agentes estratégicos ligados al turismo de Bilbao Bizkaia mediante la elaboración de un reglamento que regule la adhesión de nuevos miembros y el funcionamiento de los diferentes órganos y grupos de trabajo.
- Identificar nuevos agentes para su incorporación al BBAG conforme a los objetivos, líneas estratégicas de actuación y principios de la nueva estrategia.
- Impulsar la comunicación interna y externa a través de mecanismos que impulsen la participación y la involucración de los integrantes de los grupos de trabajo.
- Definir una propuesta en cuanto al funcionamiento y actividades a desarrollar por los grupos de Industrias y Destinos como grupos motores diferenciados de otros grupos de trabajo
- Revisar y validar la viabilidad de los grupos de trabajo ya existentes.
- Definir la sistemática de funcionamiento de los diferentes grupos, herramientas y dinámicas de participación, planificación, despliegue y ejecución de las actuaciones, seguimiento y evaluación.
- Propuesta para la comunicación y visibilidad de las acciones del grupo.

Así pues, las funciones principales de la Secretaría Técnica abordarán, al menos, los siguientes ámbitos de trabajo:

- Apoyar a la Dirección de Competitividad Territorial y Turismo en las convocatorias y la actualización de la base de datos de participantes de los BBAGs.
- Desarrollar los órdenes del día, recoger actas y generar toda la documentación necesaria para las sesiones de los grupos de trabajo, así como recopilar la información y estudios facilitados por los integrantes del BBAG, analizando, almacenando y clasificando toda la documentación. También, se deberán desarrollar los manuales que recojan el funcionamiento y normas de uso interno del BBAG durante el periodo del contrato.
- Asistir a los grupos de trabajo mediante técnicas de participación off y online, facilitando el acceso a la información e impulsando la obtención de resultados por parte de los integrantes y la Diputación Foral de Bizkaia respecto a las estrategias marcadas previamente.
- Ayudar en la contratación y supervisión de los proyectos a poner en marcha por cada grupo de trabajo, coordinando la actividad entre las empresas subcontratadas para tal efecto y los integrantes del BBAG.
- Alimentar de contenidos la página web visitbiscay.eus/profesionales en su apartado BBAG. Además, se deberá generar un CRM ad-hoc para la gestión del BBAG y sus comunicaciones digitales, así como, el uso de nuevas tecnologías vinculadas a móviles para facilitar la transferencia y recogida de información de los integrantes.
- Definir la estrategia y los Planes de Acción de cada uno de los BBAG sectoriales o grupos de trabajo.
- Organizar las reuniones de seguimiento y coordinación con los líderes de los BBAG sectoriales.
- Dinamizar e impulsar iniciativas y proyectos estratégicos a realizar por los BBAG sectoriales.
- Encargarse del seguimiento operativo y estratégico con indicadores asociados al sistema de seguimiento de la estrategia que incorpore, entre otros, indicadores de contribución a los ODS.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

- Elaborar informes trimestrales y memoria anual de ejecución, impacto y difusión de los grupos de trabajo y reportar periódicamente sobre los avances a la Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo.
- Impulsar el networking en el sector mediante la puesta en marcha de actuaciones que motiven, reactiven y fomenten la colaboración público-privada del sector de manera que se puedan generar nuevas propuestas de valor a raíz de las nuevas oportunidades en el nuevo periodo de implantación de la estrategia.
- Colaborar en la organización de eventos especiales que afecten al sector público-privado representado en el BBAG.
- Configurar un modelo de trabajo con comarcas y ayuntamientos de Bilbao Bizkaia, diseñando mecanismos y líneas de trabajo conjuntas entre todos los entes gestores de turismo de todo el Territorio, de manera que se pueda garantizar el equilibrio a través de los tres espacios en los que se estructura el territorio, alineando esfuerzos y resultados en materia de gestión turística.

4. ALCANCE DE LOS SERVICIOS

Los resultados y servicios esperados son los siguientes:

- Secretaría Técnica del BBAG, de los 2 grupos tractores (industria turística y destinos turísticos) y de en torno a 14 grupos de trabajo,
- Coordinación con los focus groups o comisiones de trabajo creados para el desarrollo y consolidación de productos
- Un mínimo de 70 sesiones de trabajo anuales.
- Entre 25 y 30 proyectos desarrollados por los grupos de trabajo.
- Una estrategia y plan anual de trabajo por cada grupo de trabajo con proyectos y actuaciones concretas que será validado por los órganos competentes.
- Un informe de evolución de cada grupo de trabajo por trimestre y un informe final por cada uno de ellos, que deberán ser reportados a la Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo.
- Seguimiento estratégico y operativo con indicadores y cuadro de mando
- Una evaluación de la satisfacción y de la participación de cada agente.
- Un sistema documental actualizado, clasificado y accesible digitalmente
- Una herramienta digital de comunicación y gestión de usuarios/as.
- Coordinación y supervisión del trabajo.
- Asistencia y consultas durante todo el año relacionadas con el BBAG.

5. OFERTA A REALIZAR

La propuesta técnica para este proyecto debe desarrollar:

- Una introducción sobre el contexto de trabajo que se plantea.
- Una metodología de trabajo propia o secundaria, con los procesos de trabajo y otros detalles.
- Una propuesta de equipo, sistema de coordinación y supervisión de los trabajos.
- Una recapitulación de los resultados que se entregarán, incluyendo, si se considera relevante, mejoras al proyecto.
- Una tabla con los parámetros de medición que permitan valorar cualitativa y cuantitativamente la eficacia y eficiencia del servicio prestado.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

6. PERSPECTIVA DE GÉNERO

Las empresas licitadoras, en la elaboración y presentación de sus respectivas propuestas, deberán hacer un uso no sexista del lenguaje. Así mismo, la empresa adjudicataria a lo largo de la vigencia del contrato deberá hacer un uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito y/o digital, así como deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 2.4 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

La adjudicataria en la justificación final de la realización de la prestación objeto del contrato incluirá una memoria sobre el impacto de género de la contratación, con los indicadores y datos desagregados por sexo de las personas usuarias o beneficiarias, o del personal prestador del servicio, que posibiliten evaluar la eficacia de las medidas de igualdad aplicadas.

7. CONFIDENCIALIDAD Y PROPIEDAD DEL TRABAJO

Todos los derechos de explotación de la Propiedad Intelectual (reproducción, distribución, comunicación pública y transformación) de las obras que se puedan crear en virtud del trabajo o prestación de servicio encomendado, serán cedidos en exclusiva a la Diputación con el alcance necesario para su actividad habitual, en el momento de entrega de la obra, sin limitación temporal ni territorial alguna y sin compensación diferente a la establecida por el trabajo o servicio prestado.

Del mismo modo, contarán con carácter confidencial, y no podrán ser publicados, ni en todo ni en parte, o utilizados de cualquier otro modo sin la expresa y previa autorización escrita de la Diputación Foral de Bizkaia.

En ningún momento, el adjudicatario podrá hacer declaraciones públicas sobre los proyectos, sin la expresa y previa autorización de la Diputación Foral de Bizkaia.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. BAC9-65L4-90GS-6MDN Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) BAC9-65L4-90GS-6MDN en www.ebizkaia.eus.

Sin./Fdo.: NEREA BEASKOETXEA MELCHISIDOR - 2022-03-29
KANPO SUSTAPENERAKO ETA TURISMORAKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PROMOCIÓN EXTERIOR Y TURISMO